

## ARDIAK

*Gizadia, aintziñate batean, nekazaritzatik baiño ere lena-  
go, artzantzatik bizi izan zan. Baíta gure Euskalerriko biz-  
tanleak ere. Naparro-n, Gipuzkoa-n eta Bizkaia-n baitik bat,  
amaikatRo artalde eder izan da gizaldiak zear. Gaur asko  
gutxiko zaigu artzantza. Gure errian, ala ere, geienik baserri  
izanik, oraindik badaude etxeetan artalderik. Nik ere badut  
txiki bat, irurogei bat burukoa. Zeregin pixkat ematen dit,  
baiña baita irabazi polita ere,*

Doiñu: « Iriya rena .. ».

Mendiak musker saroi ta zelai,  
bazterrak oro guritan;  
uda eltzean belarra bikain  
etxe ondoko landetan;  
baita ardiak, zuri-zuriak,  
trokako pendiz ertzetan.  
Orrela ditut, nik, irurogei bat  
nere etxalde onetan.

Giro ez dala neguz mendian,  
etxean ditut eukitzen;  
ego aizeak jotzen dunean  
Jarrean dute bazkatzen;  
udaran berriz. ez otz ez bero,  
goiko gaiñetan ibiltzen;  
ango belarra bait dute goxo,  
arantza dira leiatzen.

Nere mendiko txabola urria  
ez da jauregi pertxeta:  
bi arkuilluren lepoan tinko  
bizkarra zear jarrita,  
emendík beera aritz adarrak  
dauzka zalu barreiatu,  
auekin berriz beste pillo bat  
antzetsu elkar eiota.

Zoiak gaiñean jarri nizkion  
saiets-alde bietatik;  
ipar-aldea itxirik eta  
egoa dizu zabalik.  
Egal baten dut sutoki oía,  
kamaña beste aldetik.  
Onela ere nere txabolak  
ez du itxura exkasik.

Udan goietan euki oi ditut  
nere arditxo zuriak:  
bagillaren len-egunetatik  
urrilleraíño, mendiak  
dauzka, jan ta lo bertan egiñik;  
berriz ondoren guztiak  
dakarzkít beera, kortan emanik  
neguko egun hustiak.

Urtarrillaren erdirantzera  
umeak citen dira asten;  
umeetan arrek iru illabetez  
iltzeko ditut ematen,  
urrixak berriz umetarako  
ardura beroz gordetzen,  
gisa ortan dut ardi-saldoa  
urterik urte edertzen.

Ille moztea maiatz azkenez  
egin oi dizut ederki:  
ardiak ortaz larrera gabe  
etxean oi ditut euki,  
ille kentzeko denak izerdiz  
bete ditazen txit ongi;  
olan aisego burutzen dizut  
nere egitekoa noski.

Mikeltxo lagun moztu diedan  
ille mataza galantak  
sortaka salduz ekarri dizkit  
irabazi ez exkasak;  
orrez gaiñera saldu oi datut  
zaar eta gaixo diranak;  
gaztaiak ere dakarzkidate  
diru pusketa politak.

Ez dut beorrik, ezta zaldirik,  
baiña ardida naste  
sarri dakuskit beor eta bei,  
auntz eta antzeko beste.  
Ta larratzeko leku bikaiñak  
erri-basoak dituzte;  
nere ardi, auntz eta beientzat  
bada belardi naibeste.

Gaixorik sarri dira ardiak;  
txarra da urgeldi artua,  
berdintsu duzu okailla deritzan  
eztarriko aunditua.  
Ez dute ona goiz naiz illuntzez  
erori basur leitua;  
errena ere ardi artean  
aski duzu zabaldua.

Ardura pixkat —egia diot—,  
beti uzten du ardiak;  
ilbeltz-otsailla tarteko izanik  
umetzen dira asiak,  
epail aldera diru mordoa  
dakarkidate arkumiak.  
Onek ordaintzen, gaindizka ere,  
ar-azotako nekiak.